

EUSKO-JAKINTZA: BERE SORRERAZ ETA IBILALDIAZ ITZ BI *

Orain dela ogeitamar urte lerro batzuek idatzi nituan *Eusko-Jakintza* (1) aldizkariaren egitaraua nolakoa izan behar zuan adieraziaz. Andik laster aldizkari honek, bere lenengo txortan, argitarazi zituan lerro haiek. Beraz an agertzen nituan burutapenak sorrerazi zutela aldizkaria esan gentzake.

Aldizkariak, lenengo orrialdean, bere ogeitazazpi idazlari ageri zituan izen-tatuak. Haietarik zazpi besterik ez gera orain bizi.

1946-garren urtean, lehendik igeska joan-da, Laburdi-n bizi ginen euskaldun multxo batek elgar egin genduan Sara-ko *Bidartea* baserrian, orduko nere bizilekuan. Euskal-ikaskuntzezaz elkar-izketan luzaro ari ondoren, aldizkari bat egiteko asmoa artu genduan: euskalariak bertan heuren lanen berri eman dezaten, alegia.

Azken guda Euskalerrian sartu zanean, ikaslanetan emen ari ziran elkarteak banatu ziran eta ikaslari asko munduaren bost alderdietara sakabanatu. Leengo *Eusko-Ikaskuntza* izeneko elkarte ospetsuaren ataletarik *Euskaltzaindia* (Bilbo-n) eta *Ikuska* (Laburdi-n) doi-doi bizi ziran araino. *Ikuska* zan *Eusko-Folklore* eta Leen-gizakiai buruz ari ziran sailen eginkizunak bere gain artu zituan elkarteak.

Ikuska ba-zebillen bere lanbidean, aldizkari bat ere egiten zuan. Bainan ikaskuntza zabalagoai ekin beharra nabari zuten askok. Gai onezaz mintza ziran *Bidartea*-ko bazkideak, eta beragaz nik eratu nuan egitaraua onartu zuten guztiak eta bide ortan, euskal-ikerlari argitsuen laguntza bilduaz, aldizkari bat argitaratzen alegindu nedilla eskatu zidaten.

Agertu genduan beraz *Eusko-Jakintza*-ren lenengo txorta, 1947-garrengo ilbeltz-otsaillekoa.

Munduan zear, leku askotan, aldizkaria onartua zan, asi zanetik. Honen adierazgarri dira ogeitamar aldizkari gutxienez, ordainetan irixten zitzaizkigunak. Hauetako batzuek bederen izentatzen ahal ditugu: *L'Anthropologie* (Paris-koa), *Revue des études anciennes* (Bordele-koa), *Paideuma* (Frankfort-go), *Ethnos* (Estokolmo), *Folk-Lore* (London), *Acta Ethnologica* (Copenhague), *Studia Neophilologica* (Upsala), *Free University Quarterly* (Amsterdam), *Rivista de Antropologia* (Roma), *Anthropological Quarterly* (Washington), *Runa* (Buenos Aires), *Western Folklore* (Berkeley), *Philological Quarterly* (Iowa), *Trabalhos da Sociedade Portuguesa de Antropologia e Etnologia* (Porto), etab.

* Argitaragabea. 1982.

(1) Aldizkari onen izena, lenengo txortaetan *Gernika Eusko-Jakintza* izan zan.

Aldizkariari munduan egin zioten arrera onak eragin eta berotu zituan bere egille eta eraentzaleak errialde orotako euskalarien elkarte edo *Eusko-Ikaskuntza Lagunartea* egiteko. Baita hortarako erabakia artu ere Ustaritze-ko *Intxausti-baita* etxean 1948go otsaillaren 12n (2).

Elkarte hau Euskalerrria bere ikusgune guzietarik ezagutzeko egarria sortu eta albitzeko asmoan somatua zan. Asmo hau berriz *Eusko-Jakintzarenari* begira eratua.

Bereala elkargo honek Euskal-Ikaskuntzen Batzar-nagusi bat egitea erabaki zuan.

Lanbide hontarako lagunalde aundiak —bertakoak eta erbesteratuak— abiarazi zituan. Baita errialde askotako euskalariak ere eta gañera batzarra egin behar zan errietako agintariak.

Batzar nagusia egin genduan 1948-garren urteko irailaren 12-tik 20 arte. Eginkuntza batzuek Donibane-Lohitzun-en, Baigorri-n eta Bayona-n; geienak ordea Miarritze-n, batez ere, ango Lycée-ren ikastoletan, eguneroko ikasirakaslanak (15 erlotan banakatuak) eta nun-naiko euskaltzaleak ekarritako 250 agirien irakurtzea eta iardukitzea (3).

Lycée-ko ikastola batean maisuak euskeraz eman zituzten egunero irakasleak, ikaslarientzat antolatua. Gaia: gure lurralde eta erriaren ikusguneak eta hauek ikertzeko eta ikasteko jardupidea.

Biltzar aundi honen, Eusko-Ikaskuntza-Lagunartearen eta Eusko-Jakintzaren eragille altsuenak euskal-erbesteratuak ziran: auek, munduan zear edatu zuten dei eta erakusmenen bidez, saiatu baitziren ikaslanetarako behar ziren diru eta laguntzak biltzen.

Hori dana erbesteratuak beren sorlekura laster biurtzeko zuten usteak eta itxaropenak bizierazten zuan. Izan ere Miarritze-ko batzarrean artutako erabakiak, sorterrian izaten ahal zuten beren ezarpena. Zoritxarrez, itxaropen haien euskarria ondorengo urteetako mundu-politikak lurrindu eta suntsitu zuan.

Eusko-Jakintza aldizkariak bizirik jarraitu zuan oraino urte batzuetan. Baina bera lenengotik piztu eta esoindu zuten erbesteratuak sakabanatu ziranean, aldizkaria dindila gelditu zan bere VII txorta-saillean.

Aldizkari au etzan ezaguna Iberia lurradarrean, Portugal-en ez ezik. Gaurtik ordea egoaldeko Euskalerrrian ere euskalariak irakurtzen al dituzte eta usiatu bere orrietan agertu ziran irakaslanak. «La Gran Enciclopedia Vasca» dalazkoari esker.

(2) *Eusko-Jakintza*, II, 139-140 orrialdeak.

(3) V. *Eusko-Jakintza*, II, 590-592 orrialdeak.

EUSKO-JAKINTZA: COMO NACIO Y COMO PROSPERO *

Treinta años han pasado desde que redacté el programa o plan de estudios para la revista *Eusko-Jakintza*, programa que luego fue publicado como prólogo en el primer número de dicha publicación (1).

De los veintisiete colaboradores, cuyos nombres figuraban en la portada de su primer número, sólo vivimos siete en la actualidad.

Fue el año 1946 cuando un pequeño número de vascos refugiados en Laburdi nos reunimos en *Bidartea*, caserío de Sara, donde a la sazón estaba yo instalado. Después de larga conversación acerca del estado de los estudios vascos, convinimos en crear una revista en la que pudieran dar cuenta de sus trabajos los vascólogos de todos los países. Tal publicación serviría, además, como punto de convergencia de los investigadores de nuestro pueblo dispersos por el mundo.

Es que de aquellos organismos o entidades que antes de la última guerra civil se dedicaban al fomento de las investigaciones y estudios de Vasconia, de sus instituciones y de su cultura, apenas quedaban más que elementos inconexos y diseminados por los cinco continentes. De la antigua, gloriosa *Sociedad de Estudios Vascos*, sólo continuaban funcionando lánguidamente la *Academia de la Lengua Vasca*, con sede en Bilbao, y el instituto vasco de investigaciones *Ikuska* (en Laburdi), que comprendía las funciones de *Eusko-Folklore* y del *Centro de Investigaciones Prehistóricas* fundados a la sombra de aquella sociedad en los años 1921 y 1925, respectivamente.

El instituto *Ikuska* trabajaba conforme a su programa, incluso tenía un boletín de su nombre; pero había que extender los estudios a otros campos del saber. Esto se trató de poner en marcha en la reunión de *Bidartea*.

Aprobado el plan que yo les expusiera a los reunidos, éstos me rogaron que empezara a realizarlo, publicando una revista mediante la colaboración de aquellos vascólogos acreditados que se prestaran a unir sus esfuerzos a nuestro empeño.

Así comenzó *Eusko-Jakintza*, cuyo primer número correspondió a los meses de enero y febrero de 1947.

Una prueba del interés que despertó su aparición es el intercambio que logró tener con más de treinta revistas de diversos países del mundo, como *L'Anthropologie* de París, *Revue des Etudes Anciennes* de Burdeos, *Paideuma* de la Universidad de Frankfort, *Folklore* de Londres, *Ethnos* de Estocolmo, *Acta Ethnologica* de Copenhague, *Studia Neophilologica* de Upsala, *Free Univer-*

* Inédito. 1982.

(1) El título de la revista en sus primeros números era *Gernika Eusko-Jakintza*.

sity Quarterly de Amsterdam, *Rivista de Antropologia* de Roma, *Anthropological Quarterly* de Washington, *Runa* de la Universidad de Buenos Aires, *Western Folklore* de la Universidad de Berkeley, *Philological Quarterly* de la Universidad de Iowa, *Trabalhos da Sociedade Portuguesa de Antropologia e Etnologia* (Porto), etc.

El éxito logrado por *Eusko-Jakintza* contribuyó a que sus promotores constituyeran luego una sociedad internacional de vascólogos, cuyo nombre sería *Eusko-Ikaskuntza-Lagunartea*. Esto se hizo en una reunión habida en la casa «Intxausti-baita», de Ustaritz, el día 12 de febrero de 1948 (2).

La sociedad así constituida para sembar y promover la inquietud por el conocimiento del pueblo vasco en todos sus aspectos conforme al plan que había sido trazado para *Eusko-Jakintza* y fue publicado en el primer número de esta revista, acordó luego la celebración de un *Congreso de Estudios Vascos*.

Movilizó para esta tarea a muchos elementos inmigrantes y autóctonos, a vascólogos de diversos países y a las autoridades civiles y eclesiásticas de los lugares en que el congreso tuvo que actuar. Y esta asamblea se celebró entre los días 12 y 20 de septiembre de 1948, con diversos actos en San Juan de Luz, Biarritz, Bayona y Baigorri; pero, sobre todo, con sus sesiones diarias en el *Lycée* de Biarritz y con lecturas de más de 250 comunicaciones en las 15 secciones del congreso (3). En una de las aulas del Liceo se dio un curso para estudiantes en lengua vasca sobre diversos aspectos del país y del pueblo vasco y sobre el método a emplear en su investigación y estudio.

El núcleo principal alrededor del cual giraba este conglomerado de elementos que integraban la sociedad *Eusko-Ikaskuntza-Lagunartea* y el congreso, estaba formado por exiliados vascos que, con su propaganda organizada en muchos países del mundo, podían arbitrar recursos para sus actuaciones culturales.

Todo esto se hacía en previsión del retorno —que se creía próximo— de los refugiados a su país de origen, donde habían de tener aplicación la mayor parte de los acuerdos del congreso de Biarritz. Pero tales esperanzas fueron perdiendo su base en vista del proceso geopolítico de los años siguientes.

Eusko-Jakintza continuó unos años más; pero, al dispersarse los exiliados —población poco estable— que desde el principio habían hecho y sostenido la revista, ésta desapareció con el volumen VII.

Esta revista no era conocida en la península Ibérica, salvo en Portugal, donde tenía lectores e intercambio con dos revistas. Ahora, que la Gran Enciclopedia Vasca la reedita en Bilbao, los vascólogos de este lado podrán apreciar —en casos aprovechar— los trabajos que aparecieron en sus páginas.

(2) *Eusko-Jakintza*, II, págs. 139-140. En la mencionada casa *Intxausti-baita* vivía un insigne compatriota nuestro, D. Manuel Inchausti, que con largueza protegió a innumerables refugiados vascos y colaboró poderosamente en el génesis y desarrollo de diversas empresas culturales y benéficas.

(3) *Eusko-Jakintza*, vol. II, págs. 590-592.